

IRAGARKIA

Enkante publikoa, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak daukan Askatasun bidea 29 bis 2. eskuma etxebizitzaren salmentarako

1. Erakunde esleipen emoilea

- a) Erakundea: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.
- b) Helbidea: Areilza 4
- c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48.370.
- d) Telefonoa: 94 617 9160
- e) Faxe: 94 688 2097

2. Helburua

Saltzen diran ondasunak: Bermeoko Askatasun bidea 29 bis 2. eskuma etxebizitza.

3. Lizitazio moeta

Lizitazio Prezioa, honakoa da: 217.481,44 €.

4. Behin-behineko bermea: 6.524,44 €

5. Prozedura: Enkante Publikoa

- 1. Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua (Areilza 4) aurkitzen da dokumentazio guztia erakusgai.
- 2. Aurkeztu beharreko agiriak, Administrazio baldintzazehatzen orrietan zehazten dira.
- 3. Agirien sarrerako Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua aurkeztuko dira plikak, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» iragarkia argitaratzen dan hurrengo egunetik hasita 15. eguneko 14.00 orduak arte
- 4. Eskaintzen zabaltzea, epea amaitu eta zapatua ez dan hamargarren lanegunean zabalduko dira, eguerdiko 12:00etan.

6. Proposamen eredia



1. ERANSKINA

..... jaun/andereak,
.....ko kaleran, zenbakian bizi
danak, telefono zenbakia eta zenbakidun NANA
daukanak, bere izenean edo/eta Enpresaren
ordezkari legez, etako kaleran,
..... zenbakian helbidea daukanak, telefono zenbakia, eta
..... IFZ daukanak, zein, Klausula Administratibo Partikularren
Pleguan aurreikusitako forman kreditatzen dodan, zera adierazten dot:

1.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, ENKANTE PUBLIKOeran deialdia ezagutu ahal izan dodala, **Bermeoko Gizarte Ongizate Patronatuak daukan Askatasun bidea 29 bis 2. eskuma etxebizitza** eskuratzeko.

2.- Administrazio Klausula Partikularren Baldintza-agiria aztertu eta ezagutzen dodala.

3.- Halaber, Klausula Administratibo Partikularren Pleguetako lehenengo klausulak aipatzen dauzan erregelamenduzko testu legalak ezagutzen dodazala.

4.- Ados nagoala eta, borondatez, horren esku geratzen naizela eta aurreko 2, 3 eta 5. eta hurrengo ataletan hurrenez hurren aipatzen diran dokumentu guztiak eta erregelamenduzko testu legalak, oso-osorik eta aldaketa barik onartzen dodazala;

5. Aipatutako eskubide eta betebeharrak eskuratzeko
€ (letratan:.....
euro) ordaintzeko eskaintza egiten dodala (jarri prezioa zenbaki eta hizkiez).

Bermeon, 2012ko(a)ren(e)an

IZENPEA



2. ERANSKINA

..... jaun/andreak,
zenbakidun NANA daukanak, eta helbidea
dauanak:

Egiaztatzen dau, ez dagoela debeku kausetan, ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran, Administrazioagaz kontratatzeke, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan zenbakitutakoen arabera.

Eta horrela jasota geratu daiten, Administrazioagaz kontratatzeke lizitatzailleek aurkeztu behar daberen dokumentazioaren eraginetarako Ziurtagiri hau luzantzen da:

.....n 2012ko (a)ren(e)an

IZENPEA:



3. ERANSKINA

..... jaun/andreak,
zenbakidun NANA daukanak, Enpresaren
..... legez eta
bulegoak helbide honetan daukazanak:

Egiaztatzen dau, ez bera, ez ordezkutzen dauan Merkataritzako Elkartea, ezta Elkartearen Gobernu Organoa osatzen daberen pertsonak ere, ez dagozala debeku kausetan, ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran, Administrazioagaz kontratatzeko, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan zenbakitutakoen arabera.

Eta horrela jasota geratu daiten, Administrazioagaz kontratatzeko lizitatuak aurkeztu behar daberen dokumentazioaren eraginetarako Ziurtagiri hau sinatzen da:

.....n 2012ko (a)ren(e)an

IZENPEA:

